

30 EGUN BIZIKLETAN

EGIZU BAT ERRONKAREKIN

ELORRIO



Bikefriendly

Elorrioko Udalak, uztailean zehar, bat egin zuen “Durangaldea estrategia: Cycle-Friendly Employer Lurralde” konpromisoarekin. Honen bidez bizikletaren erabilera bultzatzea gura du lankidetzaz publiko-pribatu bidez.

Asmo honekin, Udalak erronka bat bota die elorriarrei **irailean** zehar modu jasangarrian mugitzeko.

Zertan datza?

Elorrioko Udalak **bizikleta elektriko bat zozkatuko du “30 egun bizikletan lanera”** erronkan parte hartu eta gutxienez honako hauek egiten dituztenen artean:

- Egunero bizikletan joan-etorri bat irailean zehar.
- 30 kilometro egitea gutxienez hilabete osoan zehar.

Zelan parte hartu?

- Jaitsi **Bikefriendly appa** eta sortu zure erabiltzailea.
- “Grupos” atalean **“Elorrio”** bilatu **eta bat egin taldearekin** (abuztuaren 31tik aurrera aurkituko duzu).
- Irailean zehar joan-etorri bat bizikletan egin behar duzun bakoitzean “Crear ruta” eta “Ciclismo” sakatu (gogoratu lokalizazio-baimenak aktibatu behar dituzula).
- Ibilbidea egin ostean Stop sakatu eta gorde joan-etorria. Barrien zure horman partekatu honako hashtag hauek erabiliz: **#30DíasenBicialTrabajo** eta **#Elorrio**.

Irailean, apur bat besterik ez bada ere, egunero eragin pedalei. Ez du axola distantziak, arrazoiak edo helmugak, eta partekatu besteekin bizikletan mugitzearen esperientzia positiboa.



Bikefriendly
We like cyclists!



CYCLE FRIENDLY
EMPLOYER
CERTIFICATION



Elorrioko udala



www.elorrio.eus